

# noaua



**"HERRITARREK 'SEGI HORRELA' ADIERAZI DIGUTE. ETA HORI EGINGO DUGU. UMILTASUN OSOZ ETA HARROKERIARIK GABE"**

Agurtzane Solaberrieta Mesa alkatea pozik da EHBilduk jaso duen babesarekin / 8

ARGAZKIA: NOAUA

**Asteburuan N634 errepideko errete bat itxiko dute, Matia parean / 5**

**Hitzarmen baten bidez adostu da Txirikordako lanen amaiera / 7**

**Pelex artistak 'Hotsez Hots 2.0' erakusketa zabaldu du Sutegin / 11**

**Udarregi ikastola jai giroan murgilduko da asteburu honetan / 22**

# BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



**ERRIGORAKO PRODUKTUEN**  
**Bi saski**  
**zozketatuko ditugu**  
**NOAUAko bazkideen artean**



Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)



## Albania

**IRTEERA 2023ko iraila**

Noaoak gidatutako talde bidaiak.  
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • [info@noaoa.eus](mailto:info@noaoa.eus) • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

**G15** GIPUZKOA  
HIGIEZINA  
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

## SALEROSKETA & ALOKAIUAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 [info@g15usurbil.eus](mailto:info@g15usurbil.eus)  
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

# Rudy margolariaren erakusketa Artzabalen

Margolari nafarrak olio-bilduma bat aukeratu du eta uztailaren 31 arte egongo da Artzabalen ikusgai.

'Bidasoatik Oriara' izenburua duen erakusketak plasma-olioaren teknika erakusten du, batik bat. Beste teknika batzuk ere lantzen ditu margolari beratarrek, hala nola, gel tintaz egindako marrazkiak edo abstrakzio geometrikoak.

Artzabalen batu dituen obrak taula eta mihiseen gainean sortutakoak dira.

80 erakusketa baino gehiagok bermatzen dute margolariaren ibilbide artistikoa. Informazio gehiagorako: [www.rudyarte.com](http://www.rudyarte.com)



Berako margolariak 80 erakusketa baino gehiago egin ditu. ARGAZKIA: ARTZABAL

## 'Usurbil, museo irekia' bisita gidatuak

Bisita gidatuak Usurbilgo kultur ondarea ezagutzeko aukera aparta eskaintzen dute. Larunbat eta igande eguerditan, Sutegitik abiatuko dira 12:00etan eta bisitak ordubeteko iraupena izango du. Izena aurrez eman beharko da: [650usurbilbizi.eus/agenda](http://650usurbilbizi.eus/agenda)

## Garbigune mugikorra Aginagan izango da astebetetz

Ekainaren 8tik aurrera, garbigune mugikorra Aginagan izango da astebetetz. Etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea du xede. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Ekainaren 15ean Txokoaldera mugituko dute.

## Ekainaren 14an, Pepa Bojoren hitzaldia Potxoenean

Jabetze eskolei buruzko hitzaldia antolatu du Usurbilgo udaleko parekidetasun sailak ekainaren 14an, arratsaldeko 17:30etan Potxoenean. Hitzordua, ahalduz saio bat baino gehiago eskaini izan dituen Pepa Bojo psikoterapeutak bideratuko du.

## Santixabel jaietako zikiro janerako txartelak salgai

Uztailaren 1eko zikiro-janerako txartelak ekainaren 16an eskuratu ahalko dira. Aitzaga elkarte jarriko dituzte salgai 19:30ean. Askatasuna plaza aldetik sartuta erosi ahalko dira. Une horretan agortzen ez badira, Bordatxon eta Txiribogan eskuratu ahalko dira.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
[elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

## IRITZIA



UGAITZ AGIRRE ZAPIRAIN

## Biharrek inoiz ez daki (9)

**H**erri txiki hura bisitatzen, kale estuak zeharkatu, eta ohartzerako, maldan gora jarri ginen. Okre eta gris koloreko harrizko etxeak geroz eta urrunago ikusten genituen gure bizkarrean, tximiniei zerien kea geroz eta gorago zihoan. Zerua urdin-urdin zegoen, egun txundigarria zen.

Zuhaitz artetik, erdi galduta, erdi galdu nahian, zelatari basak adaxka artean ezkututzen ziren. Errekasto baten pista jarraitu, haren melodia jostaria salatari, eta berrehun metrotara harri higatu, borobildu artean jauzika topatu genuen. Izokinak legez, korrontearen kontra eta aldapan gora, fabrika abandonatura ailegatu ginen. Akaso armak egingo zituzten iraganean, akaso zurgintzari lotua egon zen. Poetikoagoa baitzen hori pentsatzea: zuhaitz gazteek, goroldioak eta huntzak bere egindako harrizko hormak naturak mendeetan egositako mendekua zen.

Dantzatu nahi?

Musikarik gabe, Ugaiz?

Zergatik ez? Nahi?

Gerritik heldu nizun. Esquin-ezker balantza. Eta bat. Eta bat bi. Eta bat bi hiru bat bi hiru bat bi tupust! Indarrez heldu ninduzun sorbaldatik, ez erortzeko.

Ondo zaude?

Emeki, bi oinak nireen gainean ipini zenituen. Bat eta bi. Zure ezker hatzak eta nire eskuinak korapilatu ziren eta gerritik eusten zintudan bitartean, nire bizkar atzean pausatuta zenuen zurea. Burua bularraldean.

Gorputza arin zihoakizun fabrika zaharraren errailetan, ia-ia airean.

Gironellara eraman ninduten pentsamenduek. Fikzioaren urratsak jarraitzeko asmotan joan ginen, nire kreazio baten ehizan. Esplikatzea nahi zenuen zer egiten zuen han Sara Ballet izeneko protagonista hark, zerk atera zuen handik, zerk eraman zuen hara. Ez zitzaidan modu aproposagorik bururatu txinoetan garagardo latak erosi eta ibaiertzeko pasealekuan edatea baino. Zuk ez duzu edaten, baina Coca-Cola batek berdin-berdin balio zuen.

Mediterraneoko eguzkiak goxo berotzen zuen, eta memoria egiten saiatu nintzen:

eszena hark zer esan nahi ote zuen? Latarekin jolasten nuen, ireki gabe.

Sara eta Xavi hemen esertzen direnean, hasi nintzen kontaktzen, gaua da. Xavi bere txikitako laguna da; orain, abokatua. Aitaren hiletatagatik itzultzen da Italiatik hona. Hurrengo egunean da hileta. Akaso, sentitzen duenez hura ez dela gogoratzen zuen Gironella, dena erabat aldatu aurretik, iraganeko ohiturak inbokatu nahi ditu garagardo latak ibai ertzean edanda lagunarekin.

Ez nuen garagardoa edan.

Eta zergatik Gironella?, galdetu zenidan jakin-minez beteta herritik ateratzekotan ginenean: Zer du toki honek beste herri batek ez duena?

Ez zegoen misterio handirik. Izena gustatzen zitzaidan, bere sonoritatea. Italiaraz ahoskatzen nuen, eta horrek eragin zezakeen, ze katalanez ezberdina zela banekien.

### TRUMOI ORROAK DENA ISILDU ZUEN. HODEI ILUN IKARAGARRIAK BURU GAINEAN

Aukera batzuk simple-sinpleak dira.

Loguraz-edo, begiak itxi zenituen.

Oinak nire oinetakoetatik askatuta sentitu zenituenean, barrez lehertu zinen. Zirraren eta ezjakintasunaren urduritasuna nahasten zitzaizkizun gorputzean. Hondakin artean bals bat. Auskalo zeren prelude. Auskalo zeren epilogo. Soilik bals bat hondakin artean. Dantzatu baitaiteke ahantzuraren gainean, negarraren gainean, desolazioaren gainean, hondamendiaren gainean. Eta ernatuko dira kimu berriak, bizitzak ez du-eta etenik gupil zoro honetan. Bira eta bira eta bira, mundua gure baitan bueltaka zebilen, eta guk elkari irribarre egiten genion, libre, zoriotsu.

Trumoi orroak dena isildu zuen. Hodei ilun ikaragarriak buru gainean. Ekaitza lehertu zen ustekabeen. Erauntsiaren melodia eroa. Zaparradak blaitu gintuen hezurretaraino, eta mendian behera, bi zoro ginen aterpe bila.



Ekainaren 15ean amaituko da epea.

### Jakin Jardunaldian izena emateko epea datorren astean itxiko da

2023ko Jakin jardunaldiak Euskal Herriko gizarte mugimenduetan erreparatuko du, "elkarrekin pentsatzeko gaur egun non, nola, norekin eta zertarako egiten duten borroka".

Jardunaldia bi egunez luza-tuko da, ekainaren 21ean eta 22an, baina izen-ematea lehenago egin behar da. Ekainaren 15a baino lehen, ueu.eus atarian.

#### Helburu nagusiak

UEUk, Jakinek eta Udalak elkarlanean antolatu duten jardunaldiak helburu hauek ditu:

-Gaur egungo militantziari eta gizarte mugimenduei buruzko jakintza partekatzea.

-Euskal Herriko gizarte mugimenduen egoera eta erronkak ezagutzea.

-Erakunde publiko eta gizarte mugimenduen arteko harremanen inguruan hausnartzea.

-Mugimendu jakinetako kideak biltzea eta esperientziak elkarbanatzea.

#### Ordutegia

"Gizarte mugimenduak: erronka berriei elkargune berriak" jardunaldiak ordutegi hau izango du: ekainaren 22an (9:00-17:30 artean) eta ekainaren 23an (9:30-13:30 artean).



Mozketa ostiral gauean hasiko da. 22:00etatik goizaldeko 5:00ak arte. NOAUA

## Matia pareko errei bat itxiko dute bi asteburuetan

Autobus geltoki berriko lanei ekiteko moztuko dute N634 errepideko errei bat datozen bi asteburuetan.

Ekainaren 9ko eta 16ko asteburuetan, N634 errepideko errei bat itxiko dute Matia parean, autobus geltoki berriaren lanei ekiteko. Mozketa ostiral gauean hasiko da gaueko 22:00etan eta astelehen goizaldeko 05:00ak arte iraungo du. Denbora tarte horretan, trafikoa behin-behineko semaforo batekin bideratuko dute.

Zaintzadun etxebizitzaren auzunea eraikitzen ari da Matia Kalezarren. Matiak zein udalak hasieratik garbi izan dute auzuneak irisgarritasun unibertsala bermatu behar zuela, baina gehiegizko aurrekontuak proiektu osoaren bideragarritasun ekonomiko kolokan jarri zuen, eta bi fasetan egitea erabaki zuten: auzunea eta bere aurreko urbanizazioa lehenengo, eta

finantzazioa lortutakoan, autobus geltoki berria eta igogailua.

### "Lur mugimenduak egin behar dituzte"

Igogailuak jartzeko lanak hasita daude, eta hurrengo urratsa geltokia egiteko tokia egitea izango da. "Lur mugimenduak egin behar dituzte, hustu, eta horixe izango da hurrengo bi asteburuetan N634ko errei bat ixtearen arrazoia", udaletxetik aditzera eman dutenez.

### Proiektuaren finantzazioa

Obren kostua 1,6 milioi eurotik gorakoa izango da. Udalak 480.000 euro ordaintzeko konpromisoa hartu du. Aurrekontuaren gainerakoa Matiaren ardura izango da, baita sor daitezkeen ezustekoak finantzatzea ere.

## Haurren Eguneko ekimenetan parte hartzeko izena eman behar da

Ekainaren 30ean ospatuko da Santixabel jaien baitako Haurren Eguna eta guraso talde bat ekimen sorta bat prestatzen ari da. Izen-ematea ordea, ekainaren 16an itxiko da.



Ekainaren 16an itxiko da epea.

### Izen-ematea, emailez

LH 1-4koek ginkanan parte hartzeko aukera izango dute. Helduagoek, LH 5ean hasi eta DBH2ra arte ikasten ari direnek, erronkan.

Batzuk eta besteek, ekainaren 16ra arteko epea dute izen-ematea osatzeko. Helbi-

de honetara idatzi behar da; santixabelak.umeen.eguna@gmail.com.

Haurren Eguna aldiz, ekainaren 30ean ospatuko da aurreten.

## 3. Uxue Trail lasterketa astebete barru izango da

Ekainaren 18an egingo dute lasterketa solidarioa, goizeko 9:00etan abiatuko da frontoitik. Bi egun lehenago itxiko dute izen-ematea, ekainaren 16an gaueko 22:00etan kronoak.com atarian.

### Hiru ibilbide ezberdin

Moduotan parte hartu ahalko da hitzorduan: lasterketa luzean (20 km), motzean (11,5 km), Uxue Paseoan (5,5 km) eta dortsal solidarioa erositako Uxue Martin herrikideak duen gaixotasun arraroa ezagutzeko eta ikerketarako dirua biltzea du xede nagusi elkar-tasun ekimen honek.

### Informazio gehiago:

22q13.org.es

## Zumarteren ikasturte amaierako ekitaldiak

Urtean zehar eginiko lanketa plazaratuta agurtuko du Zumarte musika eskolak 2022-23 ikasturtea. Ekitaldi hauek iragarri ditu:

### Ekainak 16, ostirala

18:00-20:00 Formatu txikiko taldeen kontzertua Zumarte Musika Eskola atarian.

### Ekainak 17, larunbata

17:30 Trikitixa, pandero, haize eta perkusioko ikasleen kalejira (frontoitik abiatuta). 18:30-21:30 Kontzertuak (frontoian): Musika Txokoa eta Mintzairako ikasleak, Abesbatzak, Talde instrumentalak eta Orbeldi Dantza Taldea. Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

**Atari**  
Partenarietza  
- bazkariak EGUNERO  
- afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 · © 688 690 361

**txirriStra**  
TABERNA  
- PLATER KOMBINATUAK  
- BOKATAK · PINTXOAK  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

# Etorkizuna elkarrekin eraikitzen jarraitzeko deia

"Jarrai dezagun oraina eta etorkizuna elkarrekin eraikitzen", adierazi zuen alkateak legealdiko azken udalbatzarrean.

Maiatzaren 28ko udal hauteskunde bezperatan egin zuten 2019-23 legealdiko azken osoko bilkura. Hitzordua, balantzea egin eta batez ere, eskerrak emateko baliatu nahi izan zuen Agurtzane Solaberrieta alkateak, agurreko saioa izan baitzen zinegotzi gehienentzat. "Atzera begira jarrita, esango nuke azkar eta bizi joan dela lau urteko epealdia; eta, batez ere, intentsitate handiz joan dela. Legealdi guztietan izaten da zerbait nabarmentzen dena: geurean, pandemia bat eta gerra bat, alajaina! Erraz esaten da".

Hamaika gertakari gazi-gozoen artean zioenez, "nire onena ematen saiatu banaiz ere, ondotox dakit beti ez dudala asmatu, eta arantza horiek nirekin daramatzat". Eskerrak helarazi nahi izan zizkien konprometitutzat jo zituen talde kide zituenei, jasotako babesagatik eta konfiantzagatik. "Zortekoa izan naiz bizi-esperientzia hau zuekin partekatu ahal izan dudalako. Pertsona apartak, langile finak eta saiatuak, eta, batez ere,

konprometituak zarete. Talde izan gara, eta, batez ere, lagun kuadrila. Halako ardurei ekiteko eta aurre egiteko, ezinbestekoa da talde baten parte sentitzea, talde baten konfiantza, babesa eta anparoa izatea, eta halaxe sentitu ditut. Zinez eroso, erraza eta aberasgarria izan da zuekin lan egitea. Betirako eramango zaituztet bihotzean!".

Oposizioko taldeei, politikagintzan "gehiegitan" nabarmendutako "gorrotoak eta haserreak" direla eta, "ezberdintasun eta kritika politikoen gaineratik", denen artean "enpatia, gizatasuna eta errespetua" balioetan sakontzeko deia egin zuen, erdietsi dituzten adostasunak nabarmenduta. "Horregatik, nola ez, zuentzat ere nire esker hitzak, Usurbil hobea baten zerbitzura lanean aritzeagatik".

Usurbildarrak zorteduntzat jo zituen udal langileen "lana, dedikazioa, inplikazioa eta konpromisoa" ere azpimarratu zuen, "Usurbilekiko eta usurbildarreko. Zortekoak gara usurbildarrok halako



Legealdiko azken osoko bilkura egin zuten maiatzaren 25ean. ARGAZKIA: NOAUA!

langile fin, prestuak eta gaituak izateagatik, bokazio publikoa ondo baino hobeto barnerratu dute, eta horrek aparteko balioa du. Eta altxor hori zaintzen saiatuko gara".

## "Ehun komunitario sendoa"

Noski, herritarrek ere eskertu nahi izan zituen alkateak. "Duela lau urte emandako babesa eta konfiantza, gure eguneroko lan eta izerdiarekin, gure hanka-sartze eta

aziertoekin, itzultzen saiatu gara". Bere esanetan, "eskua luzatu genuen herrigintzan aritzeko, eta horretarako gogoia eta prestutasuna sentitu eta bizitu ditugu, eskuz esku eta elkarlanean aritu gara hamai-ka proiektutan". Horregatik goraiatu nahi izan zuen Agurtzane Solaberrietak herri honek duen "ehun komunitario sendoa" eta horrekin batera, "herrigintza sen itzela, eta, batez ere, herritar konprometituak. Horiexek dira gure herriaren balio erantsiak; aktiborik garrantzitsuenak". Bide honetatik aurrera segitzeko deia egin zuen. "Jarrai dezagun oraina eta etorkizuna elkarrekin eraikitzen".

## OPOSIZIOKOENTZAT ERE ESKER ONEKO HITZAK IZAN ZITUEN ALKATEAK

## Aldaketa ordenantza fiskaletan, Udalak Haur Eskolako kuoten %62 ordaintzeko

Eusko Jaurlaritzak datorren 2023-2024 ikasturterako Haur Eskolen doakotasuna aldarrikatu arren, hau bermatzeko finantziarioaz azkenean Udala arduratuko da apirilean Sutegin eginiko bileran iragarri moduan. Eskumena Gasteizko gobernuarena izan

arren, eta udal gobernu taldeetik informazio eske aritu arren, ez dute doakotasuna bermatzeko beharrezkoa litzatekeen finantziarioari buruzko argibiderik jaso. Udal gobernu taldeak erabaki horrekin bat egin arren, doakotasun hori bermatzea Jaurlaritzari dago-

kiola gogorarazi izan du hila-beteotan. Gogoan izan, EAE-n dauden udal titulartasuneko Haur Eskoletako bat da Usurbilgoa. Azkenean, ordea, aipatu moduan, Kalezarren kokaturiko eskolako kuoten finantziarioaren %62a Udalak bere gain hartuko du. Horretarako 2023ko ordenantza fiskaletan aldaketa bat txertatzea onartu zuten maiatzaren 25eko osoko bilkuran EHBil-

duko udal ordezkarien aldeko botoekin. EAJ-koak abstenitu ziren.

## Urtebeterako erabakia

Hartutako erabaki hau behin-behinekoa da, datorren ikasturterako soilik. Irailetik aurrera, 2024-25 ikasturterako dauden aukerez hausnartu eta erabaki beharko dela adierazi zuten azken osoko bilkuran.

# Hitzarmen bidezko konponbidea Txirikordarako

Zorrak kitatu eta lanak amaitzeko zeuden arazoak konpontzeko hitzarmena aldatzea erabaki dute.

Konponbide gisa aurkeztu zuten maiatzaren 25eko osoko bilkuran, bozkatu eta onarturiko hirigintza hitzarmena, Udala eta eremuko hitzarmen-batzarraren (enpresa eraikitzaileen) artean adosturikoa, Txirikordari "dagozkion eraikuntza-obra eta aipatutako partzelaren urbanizazio-obra finantzatzeko eta gauzatzeko".

Gehiengo osoz onartu zuten EHBilduko udal ordezkarien aldeko botoekin. EAJ-ren udal ordezkariak abstenitu ziren. PSE-ko ordezkaria ez zen udalbatzarrean izan.

Modu honetan, azken aldian eraikuntza lanez arduratu direnak obra egin dituzten enprekin izandako arazoak konponbidean jarriko dituen hitzarmen gisa definitu dute honako hau, egin beharreko

ordainketak egin eta geratzen diren azken lanak amaitze aldera.

## Etena ordainketetan

Aurrez sinatua zegoen hitzarmenean, bi aldeek zehaztuak zituzten hainbat irizpide. Besteak beste, hitzarmen-batzarrak Udalarari 1.423.000 euro ordaindu behar zizkion lau txandatan.

"Hirugarren ordainketa egiteko unean pizten da alarma, zati osoa ordaintzen ez denean", gogorarazi zuen alkateak osoko bilkura hartan. Laugarren zatia ezta ez zion ordaindu Udalarari. Egoera hau tarteko, "Ugartondoko urbanizazio lanak eten" ziren, udal gobernu taldetik azaldu zutenenez, eraikuntza lanez arduratu behar zuen "hitzarmen-batzarrak enpresei ez zielako



Txirikorda guztiz amaitzea ahalbidetuko du hitzarmenak. ARGAZKIA: NOAUA!

ordaintzen" hauek eginiko lanak.

Egoera korapilatu zen honenbestez. Ez enpresei ezta Udalarari ere zegokiena ordaintzeari utzi zioten Txirikordaren eraikuntza lanen ardura zutenek.

Arazo hauen aurrean, duela hiru urteko hitzarmeneko zarpigarren klausula aldatzea adostu dute bi aldeek. Txirikordako lanak guztiz amaitu eta zorra kitatzeko, Sukiak eta

Jaureguizarrek 411.500 euro ordaindu behar dizkiote Usurbilgo Udalarari. Apirilaren 17an ordainketa modua adostu zuten. "Sukiak konpromisoa hartu zuen Usurbilgo Udalarari zuzenean 95.981,35 euro ordaintzeko, eta Jauregizar SLk ordainketa lotu zuen E blokeko etxebizitzaren salmentatik jasoko zituen onurekin". Bi enpresa hauek, beraz, modu independentean ordainduko dute aipatu zorra.

## Legealdiko azken osoko bilkuran hartutako beste erabakiak

Lerrootan laburrean, legealdiko azken osoko bilkuran hartu zituzten beste erabakiak. Hasteko, beste urtebetez luzatu diote esleipen kontratua egungo Gure Pakea jubilatuen elkarteko Artzabal jatetxeko kudeatzaileari.

Horrekin batera, zerga kontuetu lotutako beste bi erabaki ere hartu zituen udalbatzak. 2023ko ordenantza fiskalen baitan, "Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen 7. artikulua aldatzea" onartu zuten. Bestetik, Gipuzkoako Foru Al-

dundiko Ogasun eta Finantza Sailaren eta Usurbilgo Udalararen arteko zerga informazioa trukatzeko esparru hitzarmenara atxikitzea onartzea aho batez.

Azkenik, Usurbilgo Udal Araudi Organikoaren aldaketa onartu zuten hasieraz aho batez, Udalaren funtzionamendua era elektronikoa garatzeko jorratzen ari diren prozesua arautzeko. Helburua argia da; lanok amaitu eta "osoki elektronikoki funtzionatu ahal izango duen Udala" izatea Usurbilek.

## Udalbatza berriaren osaera eta datozen hauteskundeak

Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetako emaitzetatik udalbatza berria ekainaren 17an osatuko da. Gainerako udalek egingo duten eguerdi berean hartuko dute kargua, hautatuak izan diren alkate eta zinegotziak.

Pasa den bozketa egunaren biharamunean, bestalde, gogoan izan, Espainiako Gortetarako hauteskundeak deitu zituen Pedro Sanchez presidentea 23rako. Egun horretan, Madrilgo Diputatuen Kongresua eta Senatua berritzeko botoa eman

ahalko da. Gipuzkoatik aurkeztuko diren hautagai-zerrendetako bat aukeratu ahal-ko da.

Hitzordu honi begirako pres-taketa lanak martxan dira. Jada posta bidez bozkatzea eskatzeko epea zabalik da. Ohi bezala, Correoseko bulegora jo behar da. Errolda ere udaletxean kontsultatu ahal-ko da ekainaren 12ra arte.

Uztailaren 23ko deialdiaren ostean, 2024an Eusko Legebiltzarrerako eta Europako Parlamenturako hauteskundeak izango ditugu.



"Maiatzaren 28ko gaua hunkigarria izan zen. Arnaldo Otegi esan zuen moduan, gau magikoa izan zen". ARGAZKIA: NOAUA

# “Lana eginez itzuliko dugu jaso dugun babes osoa”

## AGURTZANE SOLABERRIETA MESA ALKATEA

1.771 bozka. EHBildukoek ere ez zuten halako uztarik espero. Hunkituta eta pozik sumatu dugu Usurbilgo alkatea. Autokonplazentzian erori gabe, legealdi berriari aurre egiteko gogotsu.

### 1.771 bozka. Halako babesik espero al zenuten?

Nik ez behintzat. Sentsazio onak genituen. Batzuekin eta besteekin egon ohi gara, ez soilik inguruko jendearekin. Eta horietako batzuk “ondo ari zarete” esaten ziguten, “ondo eutsiko diozue”, “erraz irabaziko duzue”. Nik ordea, gauza bera erantzuten nuen beti: hauteskunde egunean ikusiko dugu.

Emaitzak bikainak izan dira, egia esan. EHBilduk inoiz udal hauteskundeetan lortutako emaitza onenak izan dira. Herritarrek eman diguten babesa eta konfiantza izugarria izan da. Legealdi berri honi beste patxada eta lasaitasun

batekin ekiteko bidea emango digu.

### Zenbat mezu eta zenbat dei jaso dituzue egunotan?

Ez dakit esaten, baina asko. Igande gaua egia esan, hunkigarria izan zen. Inguruan poz handia zegoelako. Usurbilgo emaitzengatik eta, orohar, EHBilduk Hego Euskal Herrian lortu duenarengatik. Usurbildik kanpo ere, emaitzak historikoak izan dira eta poz kolektibo hori sentitzea eta komunitate honen parte izatearen harrotasun hori sentitzea ederra da. Hauteskunde gauean une askotan hunkitu ginen, zirrargarria izan zen. Arnaldo Otegi esan zuen

moduan, gau magikoa izan digu.

### Eta espero ez zenuen mezurik iritsi al zitzaizun?

Hala da. Udaletxean jende askorekin dituzu harremanak. Eta oso esparru ezberdinetako jendearen mezuak jaso nituen. Usurbilgo ehun sozial eta ekonomiko hori osatzen duten pertsona eta arduradunen aldetik, batez ere. Denek zo-

## "HERRITARREK ERANTZUNAK ETA ZURTASUNAK BEHAR DITUZTE"

riontzeko idatzi ninduten eta lortutako babesa (urteotan) egindako lan onaren fruitu dela adieraziz.

### Oposizioko ordezkariak ere iritsi al ziren?

Bai, biharamunean.

### Egun batzuk pasa dira honez gero. Hausnarketa sosegatuago bat egiteko aukera izango zenuten. Zeintzuk dira emaitza historiko hauen atzean dauden gako nagusiak?

Lau urte hauek bereziak izan dira. Bereziak eta gogorak, pandemia bat kudeatzea tokatu zaigulako, besteak beste. Gerra bat eta gerra baten ondorioak, krisi ekonomiko baten ondorioak... Maiz esan dugu irudimena landuz erantzun geniola pandemiari. Inertzietatik at erantzun geniola, eta batez ere komunitatetik erantzun geniola. Eta uste dut jendeak kudeatzeko modu hori eskertu egin duela. Gauzak beste modu batera egiten ditugula ikusten du jendeak eta herritarrek gobernantza eredu hori saritu dutela esango nuke.

Esan eta esan ari gara, XXI. mendeko gizarte honek dituen erronkei erantzun nahian ari garela Usurbildik. Gizateriaren historian hamarkada erabakigarrian gaude. Joera batzuk larriagotu egingo dira eta zer nolako mundua datorkigun ikusita, udaletatik ere burua altxa eta horretara egokitzea dagokigu. Ez delako broma larrialdi klimatikoarena, gizartearen zahartzea, zaintza beharren areagotzea... Horrek denak erantzun bat ematea eskatzen digu.

Arrakala sozialak ere izugarri kezkatzen nau –batzuk geroz eta pobregoa dira eta beste batzuk geroz eta aberatsagoak-. Bizitza pobretzen eta prezioak garestitzen ari dira eta horrek ere eragina du herritarren eguneroko martxan. Migrazioen ugaritzea ere hor dago, geroz eta herri anitzagoetan bizi gara.

Baina begiradaz harago, erronka horiei guztiei erantzu-



→ teko proiektu zehatzak ditugu. Eta jendeak hori behar du: erantzunak eta ziurtasunak.

Bestetik, eskuz esku ari gara herritarrekin lanean. EHBilduren gobernatza-eredua eredu kolaboratibo bat dela esan ohi dugu, partehartzean oinarritzen dena, eta jendeak hori dena ikusi duela esango nuke. Emaizta hauen atzean hori ere dagoela esango nuke. Zertarako gai garen, zenbat dugun emateko. Gure zerrenda, aurrez zegoena eta orain osatu duguna, herrigilea da. NOAUA aurreko batean aipatu genuen bezala, gu kalean gaude, herrian eragiten ari gara eta hori jendeak sumatzen du. Eta hauteskunde egunean 'segi horrela' adierazi zigutela esango nuke, eta hori egingo dugu. Umiltasun osoz eta harrokeriarik gabe. Lana eginez itzuliko dugu jaso dugun babes osoa.

**Politikak gero eta erakarpen ahalmen txikiagoa du. Gazte sektore bat gainera oso kritikoa da EHBildurekin. Usurbilen aldiz, ez da antzeko fenomenorik eman. Kanpainan zehar gainera, gazte talde zabal batek argi eta garbi azaldu du zuekiko atxikimendua. Hori ere bada zuen emaitzen atzean dagoen beste gako bat, ala ez?**

Usurbildik kanpo ere batzuekin eta besteekin izaten gara, eta kanpotik ikusita badirudi irla bat garela, GKSren fenomenoa ez delako gurera iritsi. Nik beti azpimarratzen dut Usurbilek azken bolada lizean gazte belaunaldi oso indartsua duela. Herri honek duen altxor inportante bat hori da, dagoen gazte belaunaldi konprometitua. Usurbilgo herriaren ezauzgarri nagusienetariko bat bada herri konprometitu bat garela, bizi garen komunitate honetikiko konpromiso bat duen herri bat garela, eta balore hori belaunaldi berrietara transmititzen ari gara.

Horretaz gain, herriko gazteek arlo ezberdinetan egiten duten lana nabarmentzekoa da. Izan gazte mugimenduaren baitan,



"Udal hauteskundeetan herritarren %40ak parte hartzeari uko egiteak politikarekiko urruntasuna adierazten du". NOAUA

izan kultur mugimenduaren baitan, herriko festetan, ostiral gauetan sortzen duten giroa... Hori hor dago, eta azpimarratzeko da zer nolako gazte belaunaldi konprometitua eta langilea duen herri honek.

Eta uste dut EHBilduk sustatzen dituen balore, proiektu eta alternatibek ere bat egiten dutela horrekin guztiarekin. Hor badago konfuzientzia bat, oso inportantea dena.

Aurreko lau urteetan ere gaztea zen gure udal taldea eta mugimendu eta talde ezberdinekin izan dugun harremana ere, harreman zuzena izan da. Elkarlana erabatekoa izan da eta hori ere islatu da gure zerrendan. Gertuko harreman hori gabe zaila litzatekeelako gisa honetako zerrenda bat osatu ahal izatea.

Gainontzean, hauteskunde kanpainan zehar Usurbilgo gazteek harro erakutsi dute EHBilduko komunitatekoak direla eta hori ere argi islatu da emaitzetan.

**"GAZTE BELAUNALDI KONPROMETITUA DU USURBILEK"**

**Abstentzioa ia %40koa izan da. Joera goranzkoa da gainera. Ez dirudi konponbide erraza duenik. Kezka iturri al da zuentzat?**

Bai, bada. Usurbilgo kasuan, abstentzioak EHBilduri ez dio eragin. Abstentzioa 5'5 puntu igo arren, EHBilduren emaitzak gora egin du. Beste alderdi batzuei eragin die horrek. Dena den, udal hauteskundeetan %40ak parte hartzeari uko egiteak politikarekiko urruntasuna adierazten du.

Usurbilen, berriro ere, abstentzio handiena Santuenean gertatu da. Guk duela lau urte datu horri erreparatu genion. Ez dago soilik urruntasun fisiko bat kaxkoaren eta Santuenearen artean, badaude beste gisa bateko urruntasun batzuk ere datu horren atzean. Hain zuzen horregatik, legealdi honetan oso modu nabarmenean hurbildu gara Santuenera. Dei bat da, egindakoa ez dela aski adierazten diguna. Gai izan gara lau urteotan auzotarrekin batera eta parte hartze handi

**"ESATEN DUGUNA GARA ETA ESATEN DUGUN HORI EGITEN DUGU"**

batekin, auzoaren zaharberritzea ekarriko duen auzo-plan bat osatzeko baina hori gaur-gaurkoz txosten batean dago. Eta txosten hori ekintzatar eraman behar dugu. Politikagintzan hitzek baino ekintzek dutela balioa. Jendeak horri erreparatu dio. Gure emaitza onaren zergatia hortxe dago, hain zuzen: esaten duguna garela, eta esaten dugun hori egiten dugula. Eta aldiz, Santuenean, Zubietan edo Aginagan hori etortzeko dago. Eta horrek esan nahi du legealdi berri honetan horri erreparatu behar diogula, jendea udalgintzara eta politikagintzara hurbiltzea nahi badugu behintzat. Horrek ematen baitio sinesgarritasuna udalgintzari eta politikagintzari.

Zer nolako abstentzioa egon den ikusita, badirudi batzuk ez diotela horri erreparatu nahi. Hauteskundeak pasa eta berehala, politikaren aurpegirik makurrena erakusten ari baitira, EHBildu gobernantzatik kendu ahal izateko. Berriro ere alderdien arteko akordioak helburu bakar batekin: EHBildu baztertzea. Ez al duzue herritarren mezua ulertu nahi? Gisa honetako praktika politikoak are gehiago urruntzen du herritarra politikatik.

# "Etxealdian irisgarritasun plan bat osatzen ari gara bertako bizilagunekin"

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA ALKATEA

EHBilduren hautes-programa 90 neurritz osatzen da. "Lehentasunak markatu eta kronograma bat zehaztu behar dugu orain". Etxealdia biziberritzea izango da legealdiko proiektu nagusietako bat

**Aginteak desgastea dakarrela esan ohi da. Ez da horrelakorik eman Usurbilen. Baina bestetik, halako babes zabala jaso eta gero, autokonplazentzian erortzeko arriskua handia izan daiteke. Horren jakitun al zarete?**

Gobernantzak ez gaitu kaltetu. Gero eta gehiago dira proiektu honekin bat egiten ari diren herritarrak. Autokonplazentzian erortzeko arriskua baino, lanean jarraitzeko akuilua dela esango nuke.

Gauzak beste modu batera egiten ari gara. Hainbat esparrutan, Usurbil proiektu aitzindariak lideratzen ari den herria da eta horrek erakusten du ez gaudela autokonplazentzian. Gaur egungo gizarteak dituen erronkei irudimena baliatuz eta ikuspegi eraldatzaile batekin egin nahi diegu aurre. Ez gaude hemen gobernatzeagatik gobernatzen, erronka horiei aurre egin eta usurbildarrak hobeto bizi daitezen ari gara lanean.

**Epe motzera, zeintzuk izango dira zuen lehentasunak?**

Neurri asko biltzen ditu gure programak baina orain legealdi osorako bide-orri bat osatu behar dugu. Lehentasunak markatu eta kronograma bat zehaztu. Hori esanda, nahikoa identifikatuta ditugu legealdi honetarako proiektu izarrak.

**Adibidez?**

Etxealdian asteak daramatzagu bertako herritarrekin batera



Elkarrizketaren bertsio osoa [noaua.eus](http://noaua.eus) webgunean aurkituko duzue. NOAUA

auzoarentzako irisgarritasun plan bat osatzen. Plan horrek gauzatze-fase ezberdinak ditu eta aurreikusten zen fase bat 2023ko udal aurrekontuetatik jarriko da martxan. Bestea da kaxkoa eta auzoa lotuko dituen igogailuarena.

Ez daukat ahazteko Etxealdiako auzotarrekin batera egin genuen bilkura bat. 40 bat auzotar etorri ziren eta emakume heldu bat gerturatu zitzaidan esanez, jada ezin zuela kaxko-

ra bakarrik igo, ez dagoelako irisgarritasuna bermatuta. Etxealdia bada zahartzen ari den auzo bat. Eta kaxkotik gertu egon arren, pertsona bazuentzako oso urrun dago.

**"LEGEALDI OSORAKO BIDE-ORRI BAT OSATU BEHAR DUGU"**

Emakume honen hitzekin bihotza uzkurtu egin zitzaidan.

Egia da igogailuarena baze-goela egungo garapen urbanistikokoan jaso. Eredu hori markesarena da baina udala saiatuko da hori aurrera eramaten. Proiektu honek eskatzen digun kudeaketarekin berehala hasiko gara.

Zubieta eta Santuenea lotuko dituen bidegorriarekin ere, berehala hasi nahi dugu. (...) Artzabaletatik Santuenerako zatia da bukatu nahi duguna. Ez da proiektu berri bat. Udalak bazuen aurreproiektu bat, baina orain gauzatu nahi dugu. Horrek eskatuko digu inguruko lur-jabeekin akordioetara iristea. Lan nekeza eta mardula izango da. Baina modu horretan, oinezkoak eta txirrindulariak modu seguruan ibili ahal izango dira bide horretan.

Zaintza eredu berrien inplementazioan ere segiko dugu lanean. Horretan gaude.

**9 zinegotzirekin, EAJ eta PSEren babesaren premia handirik ez duzue izango. Oposizioko indarrekin nola jokatu duzue?**

Zinegotzi bat gehiago izateak ez du gure lan egiteko modua eta dinamika aldatuko. Azken lau urteotan beti saiatu gara herri akordioak lortzen. Alderdien interesez harago, hainbat gaitan ezinbestekoak dira. Aurrerantzean ere, alderdi ezberdinen arteko akordio horiek lortzen saiatuko gara.

Xabier Otxoa EAJren hautagaiari NOAUAn irakurri nion oposizio eraikitzaile bat egingo dutela. Gu beti egon gara akordioetara iristeko prest. Herritarrek eta herriko eragileek proposamenak egiteko bideak irekiak dituzte eta gauza bera oposizioaren kasuan. Gu prest gaude haien aldetik egon daitezkeen proposamenak entzuteko eta, aukerarik badago, adostasunetara iristeko.

**Bidegorriarena izan daiteke horretarako adibide bat, ezta?**

Bai, bai.



Jose Luis Elexpe 'Pelex' eta Usurbilgo alkatea, 'Hotsez Hots 2.0' erakusketaren irekiera ekitaldian. ARGAZKIA: NOAUA

## Pelex-en 'Hotsez Hots 2.0' erakusketa ikusgai

Ekainaren 25era arte zabalik izango da Sutegin, Jose Luis Elexpe 'Pelex' herrikidearen erakusketa.

2006an abiarazi zuen 'Hotsez Hots' egitasmoaren segida moldatua da sortze lan bilduma. Txalapartan murgilarazi zuen Jexux Artze omenduz hasi zuen proiektu hau 2008. urtean. "Bi urtez Euskal Herrian ibili zen erakusketa eta Bartzelonaraino ere iritsi zen". 2010. urtean eman zion amaiera. Hamarkada bat geroago, iaz jarri zituen estreinakoz ikusgai, asteotan Sutegira ekarri dituen artelanak, Beasaingo Igartzan.

### "Beste material batzuk erabili ditut honakoan"

'2.0' honek hamar urteotan sortzaile usurbildarrak izandako bilakaeraren lekuko bilakatuko gaitu Sutegin. "Profesionalki hobeto jarria nago orain", zioen. Artelanak egiteko baliatutako materialean aldaketa sumatuko dugu.

"Beste material batzuk erabili ditut, material oso finak", zioen erakusketaren irekiera ekitaldian. Xede jakin batekin erabili nahi izan ditu. Sortutako lanak "airean egongo balira bezala da". Koloreei erreparatuz gero, txuriari ematen dion protagonismoa nabarmendu zuen, "orekak sortzeko eta egonkortasuna eskulturetan. Bere fintasun horretan gorantz bezala doa". Hortik aurrera, jatorriko erakusketako katalogoetan ikus dezakegu duela hamarkada bat erakutsi zuena eta egungo bilduma Sutegin duzue ikus-

### "USURBIL ARNASTEN DA" SUTEGIKO ERAKUSKETAN

gai. Zer esana emango duela esperota, "ea zer diozuen, zuen gustukoa izatea espero dut". Ziurtatu zuenez, 'Hotsez Hots' egitasmoaren amaiera da honakoa. "Seguruena 3.0 jada ez da egongo, hor bukatuko dut". Gustura amaituko du "bizitza erdia" jorratzen daraman proiektua. "Hor geratuko da betiko. Harro egoteko motibo bat da eta espero dut zuen gustukoa izatea. Gozatu!".

### Mugimendua eta hotsa

"Guretzat luxua da, ohorea. Aldi berean, kasik derrigorra zen erakusketa hau ere Usurbilera ekartzea". Halaxe zioen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak, Jose Luis Elexpe 'Pelex'-en erakusketaren irekieran. '2.0' bertsioaz zioenez, "batez ere mugimendua eta hotsa uztartzeko". Horrekin batera, baita Usurbildik kanpo bizi arren, "zure sorterriarekin dituzun loturak, harremanak islatzen ditu". Herrikide guztiak erakusketa bisitatzerantz animatu zituen. Iazko urte amaieratik zen hartuemanetan Udala 'Pelex'-ekin. "Inon zentzurik eta tokirik badu erakusketa honek Usurbilen du. Usurbil arnasten da erakusketa osatzen duten artelan guztietan".

## Aisialdiko dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu da

Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroak diruz laguntzeko oinarriak argitaratu berri ditu Usurbilgo udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Dirulaguntzak ekainaren 19tik uztailaren 7ra bitartean eskatu ahal izango dira.

Epeaz gain, laguntza kopuruak ere zehaztuak datoz aldizkari ofizialean:

### Begirale ikastaroa:

Matrikularen %50 (gehienez ere, 250 euro).

### Zuzendari ikastaroa:

Matrikularen %50 (gehienez ere, 250 euro).

Udaletxeko harreraren edo zerbitzu telematikoen bitartez eska daiteke dirulaguntza.

## 2022/2023an euskara ikasi dutenentzako dirulaguntzak

Diruz lagunduko diren ikastaroak hauek izango dira: HABEK homologatutako zein homologatu gabeko ikastaroak (azken hauen kasuan, urratsa gainditzen bada), 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean egindakoak.

Emango den dirulaguntza dagoeneko zehaztuta zegoen. Matrikula kostuaren %100 jasoko dute (600 euroko mugarekin), baldintzak betetzen dituzten ikasle guztiek.

### Ekainaren 19tik aurrera

Eskaera aurkezteko epea: ekainaren 19tik uztailaren 7ra arte (biak barne).

Udaletxeko harreraren edo zerbitzu telematikoen bitartez eska daiteke dirulaguntza.

# Margotu

Eman kolorea lagun talde honi. Izar batzuk ere marraztu itzazu, gaua da eta.



# Itzala

Zortzi itzal hauen artetik zein ote da zuzena?



GAIZVLUNPTOKIWUP IRAWUPBAZIAWUP,  
VLUNPIRAWUPTXOMUJEKWUPVLUNP  
VLUNPIRAWUPGAMUJZIAWUP



# Zeer?!

Ezaba itzazu VLUNP,  
WUP eta MUJ  
guztiak eta iratxoen  
gaineko esatera bat  
agertuko zaizu.

# DOMINOAN





## Sudokua

Bete hutsuneak, IRATXO hitza osatzen duten hizkiak (I, R, A, T, X eta O) dagokien tokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

## Aldea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 10 dira guztira.



## Engainagarriak

10 puska hauetatik 5 irudi nagusitik hartuta daude eta besteak ez. Bereiz itzazu.





Aginagako Eliza Zaharrean jokatu zen. ARGAZKIA: NOAUA

## Gipuzkoako Dardo Kopa Txapelketa

Gipuzkoako Dardo Kopa jokatu zuten larunbatean Aginagako Eliza Zaharrean. Bakarkako txapelketa jokatu zuten goizean eta arratsaldean binakakoa. Hainbat eta hainbat dardoazale hurbildu ziren ekitaldira. Txapelketaren argazki gehiago noaua.eus web orrialdean dituzue ikusgai.



Santuenea Kultur Elkartearen ekimenak harrera ona izan zuen. ARGAZKIA: NOAUA

## Pottokekin jolasteko aukera Santuenean

Pottokez gozatzeko aukera bikaina izan zuten aurreko igandean Santueneko eskubaloi plazan. Txandaka pottoken gainean ibiltzeaz gain, bestelako jolasak egiteko tartea ere izan zuten. Bien bitartean, helduek hamaiketako ederra egiteko aukera izan zuten.

# TXIRIBOGA

## TABERNA

**SANTIXABEL FESTETAN:**  
(Ostiral gauetik astelehen eguerdira)

**MENU BEREZIAK AUKERAN:**

43€

45€

47€

**SAN JUAN BEZPERAN...**  
OGITARTEKOAK

943 21 88 40

**IRAZU KALEA 6, USURBIL**

# noaua

jarraitu gure sare sozialak

f  
facebook

@  
Instagram

t  
twitter

Q  
noaua

www.noaua.eus



Lantegiaren atarian elkarretaratze ugari egin dituzte egunotan. ARGAZKIA: LAB MICHELIN



Bermeak eskatzen dituzte.



Manifestazioa jendetsua izan zen.

# Hitzarmen duinaren alde borrokan

Michelingo langileek lanuzte eta mobilizazio ugari egin dituzte ekainaren 2tik 5era. "Negoziazioei berriro ekiteko deia luzatu nahi diogu Enpresa Zuzendaritzari", adierazi dute behin eta berriz. Langileen erosteko ahalmena bermatuta egongo dela finkatu nahi dute lan-hitzarmen berrian.

Bermeak dituen lan-hitzarmen baten alde mobilizatu ziren ekainaren 2tik 5era Michelingo langileak. Lehen hiru egunetan lanuzte sektorialak egin zituzten eta azkenekoan, astelehenean lantegia erabat geratu zuten goizean goizetik. Atarian mobilizatu ziren eta protesta ekimenekin segi zuten goizean zehar, Donostian barrena kotzez. Arratsaldean, Michelin atarian hasi eta amaitu zen manifestazio jendetsu batek eman zion amaiera protesta ziklo honi.

Lanerako jantziekin irten ziren, etorkizun duinago baten eske. Mobilizazio zaratatsua izan zen Lasarte-Oriako kaleetan barrena egin zutena. Txistu hotsen artean herriratu zuten lan baldintza duinak ziurtatzeko aldarria. Langileak zeuden bertan,

baina baita kasu askotan haien etxeokak, senide eta lagunak. Ehunka lagun erakarri zituen aste hasierako mobilizazioak.

**Negoziazioei berrekiteko deia** Manifestazio amaieran, Michelin atarian bildu eta enpresako zuzendaritzari eskaera argia egin zioten. "Gaur greba eta mobilizazioen lehen egun arrakastatsuen ondoren, Hitzarmenaren Negoziazio Mahaitik gogoeta sakona egin eta harrokeriazko jarrerak baztertuz, akordio eta bermedun hitzarmen bat ahalbidetzeko, negoziazioei berriro ekiteko deia luzatu nahi diogu Enpresa Zuzendaritzari".

Ez da halakorik galdegiten duten lehen aldia. Gogorazazi zuten, "hitzarmenaren

Negoziazio Mahaitik behin eta berriz eskatu diogu Enpresa Zuzendaritzari langileon aldarrikapen nagusiei erantzuteko".

Honako eskaerak bermatzea nahi dute. "Zuzendaritzari soldaten igoerak eskatu dizkiogu, prekaritatearen marmua gure fabrikatik baztertzeko ere exijitu diogu eta batez ere, gure soldatak inflazioarekin lotuta egon behar dutela adierazi diegu. Hitzarmenaren indarraldia amaitzean gure erosteko ahalmena berriro murriztuko ez dela

**ASTE HASIERAKO MOBILIZAZIOEK EHUNKA LAGUN BATU ZITUZTEN**

bermatua egon behar duela. Michelingo langileok behar eta merezi dugula".

**"Urteotan gure lan ona eta konpromisoa erakutsi dugu"**

Arrazoizko eskaerak direla irizten dute. "Michelingo langileok urteotan gure lan ona eta konpromisoa askotan erakutsi dugu, pandemiaren geroztik jasan behar izan dugun guztia ez da makala izan, Michelingo Zuzendaritzaren aldetik errespetua eta aitortza tratua irabazia beharko genuke! Michelingo balantze ekonomikoek argi uzten dute langileen aldarrikapenei zailtasunik gabe aurre egin diezaieketela".

**Gasteizko lantegikoak ere, greban**

Usurbilgo lantegia soilik ez, Gasteizkoa ere ildo bereko borroka betean da. Greba egun hauei ekin aurretik, hain zuzen, hemengo hainbat langile Arabako hiriburura joan ziren, hitzarmen duin baten alde, hango Michelingo LAB, ELA, ESK eta CGT sindikatuek deitutako manifestazioan parte hartu eta babes adieraztera. "Asteburutik aurrera gure txanda" izango zela iragarri zuten.

# “Gustuko duzuna egitea da garrantzitsuena”

Urteak daramatza Rosa Uribe herritarrak lasterka. Hainbat eta hainbat podiumetara igo da 30 urteko ibilbidean eta askok asfaltoan korrika ibiltzeagatik gehiago ezagutuko badute ere, azken urteetan mendian dabil lasterka.

**Urteak daramatzazu korrika. Lasterketa bat ondo amaitzeko non dago sekretua, entrenamenduetan? Gaitasun fisiko bereziak behar al dira akaso?**

LH6n hasi nintzen korrika, 12 bat urterekin. 51 urte ditut orain, beraz, ia 30 urte daramatzat. Gustuko nuelako hasi nintzen atletismoak eta entrenatzen dudalako hobetu dut gaztetatik. Gustuko duzuna egitea da garrantzitsuena eta lan pixka bat egitea.

**Nolakoak dira zure entrenamenduak? Zuk baduzu errutina jakin bat? Zenbatero entrenatzen duzu?**

Orain ez dut entrenamendu errutina jakin bat jarraitzen, gozatzeko egiten dut korrika inolako presiorik gabe. Momentu honetan ez naiz asko entrenatzen ari, egia esan. Gogoia daukadanean Txokoalde aldera edo Zubieta ingurura joaten naiz korrika. As-teburuetan bai, Andatzara joaten naiz. Asteazkenean zehar mendira joateko denbora gutxiago izaten dut lanagatik eta eguzki orduak ere oraindik ez direlako udan bezalakoak.

**Distancia ezberdineko probak daude. Zein da erosoena egiten zaizuna?**

Orain erosoan 25km inguruko lasterketak egiten ditut. Orain mendi-lasterketetan bakarrik hartzen dut parte, eta beste-lakoan artean Behobia egiten dut urtero. Orain gutxi jakinarazi didate izen-ematea egin behar dela Behobiarako, eta izena eman dut, jakina. Horiez gain, Usurbilen antolatzen dituzten lasterketetan ere par-



"12 urterekin hasi nintzen korrika. 51 ditut orain". ARGAZKIA: NOAUA

**"ORAIN, 25KM-KO  
LASTERKETAK  
EGITEN DITUT  
EROSIEN"**

**"LEHEN ASFALTOAN  
ARITZEN ZIREN  
NESKA ASKO PASA  
DIRA MENDIRA"**

te hartu ohi dut: Basurde Kro-sean eta Uxue Trailen, esaterako.

**Asfaltoan utzi eta mendian hasi zara berriki, orduan.**

Pena daukat mendia lehenago ez ezagutu izanaz. Arantxa Izagirrek animatu ninduen mendian hastera. Behin kalean aurkitu nuen biok korrika ari ginela, eta mendirako bidea hartu genuen. Beti esaten diot bere "erruz" hasi nintzela mendian, eta eskertzen diot bide berri hau erakutsi izana. 2015ean hasi nintzen mendian korrika, 45 urte nituela. Oso berandu. 30 urterekin hasi izan banintz hobe, baina badut pena hori. Asfaltotik mendira pasatzen zarenean, ez duzu asfalto gehiago ikusi nahi. Neska asko pasatu dira mendira lehen asfaltoan ibiltzen zirenak eta txispa handia dute. Herrian ere geroz eta neska gehiago ikusten ditut Andatzan korrika, baina tamalez, gehienak 30 bat urte arte ez dira hasten. Ea pixkanaka neska gazte-gazteak mendian hasten diren.

**Zu ari zaren mailan aritzeko, asko zaindu beharra al dago?**

Ni ez naiz egungo gazteak bezainbeste zaintzen. Gauzak asko aldatu dira duela hogeiturtetik hona. Entrenamenduak, jateko modua eta bizimodua asko aldatu dira, orokorrean. Egungo kirolari guztiak atletak dira egiten duten kirola egiten dutela ere. Gorputza zaintzeari garrantzi berezia ematen zaio orain, fisioarenera joaten dira asko, eta nutrizionistarengana ere bai. Herri kirolean ikusten da hori izugarri. Orain herri kirolean harria altxatzen dutenak atletak dira. Nik ez ditut ohitura horiek neureganatu, neurri handi batean helburuak ere ez ditudalako gisa horretakoak.

**Zein helburu dituzu?**

Noizbehinka lasterketaren bat egiten dut motibazioa ematen didalako, baina presiorik gabe.



Nire helburuak lasterketak egitea da noizbehinka. Oso ondo ezagutzen dut neure burua eta gorputzaldiak oso kontrolatuta dauzkat. Erloju-rik gabe ateratzen naiz korrika egitera eta lehen sentsazioekin badakit zenbateko buelta egingo dudan gutxi gorabehera. Nire helburua honetan jarraitzeko ohitura ez galtzea da eta horretarako lasterketak egitea.

**Beste kirol jarduera batzuetan ere arituko zinen txikit. Noiz egin zenuen atletismoaren aldeko apustua?**

Atletismoa baino ez nuen egin umetan. Usurbilen eskubaloia baino ezin zitekeen egin Santuenean, eta oker ez banago urte haietan hasi ziren judoa eskaintzen kiroldegian. Futbolearen mutilen taldea baino ez zegoen, nesken taldea beranduago sortu zen. Nesken taldea izan balitz, horretan hasiko nintzen ziur aski. Herriko egoera ikusita, atletismoan hasi nintzen Lasarteko Landaberri Ikastolan. Seigarren mailatik zortzigarren arte han ibili nintzen eta gero, Michelin taldera pasatu nintzen. Bertan hiru edo lau urte egin nituen eta handik Donostiako Gipuzkoako Atletismo taldean parte hartzea pasatu nintzen. Anoetan entrenatzen genuen hango atletismo pistetan. Lasarteko taldekoak ginen gehienok Andoaingo talde batera joan ginen. Azken talde horrekin 22 urte arte egon nintzen eta ordutik neure kabuz aritu naiz korrika.

**Hainbat sari jaso, hainbat podium egin dituzu. Zein da gustukoena duzun txapelketa?**

Larraul-Ernio-Larraul txapelketa oso gustura egiten dut.



lazko Uxue Trail lasterketan, ibilbide luzeak nagusitu zen. ARGAZKIA: NOAUA.

Nire mendiko lehen lasterketa izan zen hura eta podiuma egin nuen.

**Zu aritzen zaren lasterketetan lehiakortasun handia dago ala, alderantziz, lagun giroa da nagusi zuen artean?**

Korrika aritzea nahiko kirol indibiduala da. Asfaltoan ibiltzen nintzenez, eta taldean nengoela markak egin nahi izaten genituen eta hobekuntza konstante bat nahi izaten

genuen. Mendia ezberdina da, beste giro bat dago.

**Zure ibilbidean, zer nolako garrantzia izan dute prestatzaileek?**

Oso garrantzitsuak izan ziren. Lasarten Javier Castro eta Donostian Mugi izenez ezagutzen genuen entrenatzaile bat izan nituen. Urteen poderioz, oso ondo ezagutzen gintuzten entrenatzaile hauek eta bazekiten zein entrenamendu etorriko zitzaizkigun ondoen.

**"GORPUTZAK UZTEN DIDAN BITARTEAN JARRAITUKO DUT"**

**"HALA ERE, LASTERKETETATIK URRUNTZEN ARI NAIZ PIXKANAKA"**

Garai haietan oso garrantzitsuak izan ziren.

**Korrikalarien munduan profesionalizazioa urruti ikusten al da ala badaude kasuak?**

Geroz eta ikusgarritasun gehiago duen kirola da, baina oso ondo ona izan behar da eta esponsorrak lortu. Taldea utzi nuenetik animatu naute talderen batean parte hartzea, baina gustura nabil bakarrik.

**Eta etorkizunean, lehiatik erretiratzeko zarenen, kirol munduari lotuta ikusten duzu zure burua?**

Lasterketak geroz eta gutxiago egiten ditut eta pixkanaka urruntzen ari naiz. Hala ere, ahal dudan bitartean jarraituko dut Andatzara igotzen eta korrika egiteaz gozatzen. Gehiago entrenatuko banu hobeto egin nezakeen orain ere, baina gustatzen zaidalako egiten dut eta ondo pasatzeko. Beraz, gorputzak uzten didan bitartean eta gogoz jarraitzen dudan bitartean korrika jarraituko dut.

**Laburrean**

- Zenbaki bat:** 5.
- Kolore bat:** Urdina.
- Kirolari bat:** Maria Luisa Irizar.
- Lasterketa bat:** Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa.
- Film edo telesail bat:** 'Hambre'.
- Liburu bat:** 'Las lealtades' (Delphine de Vigan).
- Abesti bat:** Berandu dabilta (Ruper Ordorika).
- Sare sozial gustukoena?** Bat ere ez.
- Usurbilgo txoko kuttunena:** Andatzako buzoia.
- Santixelak ala Sagardo Eguna?** Sagardo Eguna.
- Oporretarako toki bat.** Menorca.

**Antxeta**  
 TABERNA  
 egunero irekitzen dugu!  
 eguneko menua · asteburuko menua  
 oilasko erreak, ogitartekoak, raziokak...  
 paellak enkarguz!  
 943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

943 361182  
**EROSKI/city**  
 kale Nagusia 10, USURBIL

Zuen  
 publizitatea  
 hemen  
 943 360 321  
 publizitatea@noaua.eus

**JUANTXO**  
 BURDINDEGIA  
 Zubiaurrena 8, USURBIL  
 943 37 00 08



Mahaspildegiko elkartearen bazkideak, 40. urtemugako ospakizunetan. ARGAZKIA: MAHASPILDEGI

# Mahaspildegiko, auzoarekin hazitako elkarteak

## MAHASPILDEGI ELKARTEAK 40 URTE

Berrogei urte bete ditu Atxegalde eraiki berrian auzotik sortu zen elkarteak. Lau hamarkada igarota, elkarteak kide berriei ireki nahi die atea.

Mahaspildegiko zuzendaritza batzordeko kideekin bildu da NOAUA! eta elkartearen jatorriaz galdetutakoan, segituan adierazi digute. "Auzo elkartearen ondorio argia da hau". Jaiak, irteerak, ikastaroak... antolatzen zituen bilgune dinamiko askoa zuen garai hartan Atxegaldek. "Lan egiteko borondate handia zegoen", gogorarazi digute. Mahaspildegiren aurrekaria izan zen auzo elkarte hau, ordea, halabarrez sortu behar izan zuten. "Etxebizitzek gabeziak zituzten, auzoko hirigintza lanak amaitu gabe zeuden", oroitu dute. Atxegaldek garai hartan zuen egoerak mugiaraztera eraman zituen.

### "Salgai"

Oraindik orain pisu batzuk saltzeke zituen enpresa erakitzaileak. "Jaramonik egiten ez zigutenez etxebizitza gehienak salgai zeuden kartelak jarri genituen. Egunkarietan auzo osoa salgai zegoela berri eman zuten", oroitu dute. Diotenez, ikusgarria zen N634 errepidetik auzoko balkoi eta leihoetara begiratu eta pisu ia denak salgai zeudela ikustea.

### "ELKARTEAN LAN EGITEKO BORONDATE HANDIA ZEGOEN"

Garaiko hedabideetako lerroburuetan agertu ziren, udalbatzetan ere zeresana eman zuten. Saiakera hauek guztiek izan zuten emaitzarik. "Gauza asko lortu ziren". Udala inplikaraztearekin batera, hirigintza lanak egoki amaitu zituzten eta hala, hainbat pisuetako ateetan edota teilatuetan zeuden arazoak konpondu zituzten. Egun, Atxegalde Kaxkoarekin lotzen duen

### "142 BAZKIDE IZAN DITU MAHASPILDEGIK. EGUN, 58 DITU"

hilerri zahar pareko bidea ere egitea lortu zuten. Hirigintza lanak egoki amaitzea lortu zuten.

Auzo elkarteak plazan zuen egoitzan hasieran, baina Mahaspildegiko egungo eraikina erosi eta auzolanean birgaitzera igaro ziren gero. 1983an erosi zen, lanak amaituta 1985. urte amaieran inauguratu zuten. Orduko bazkideek 10.000 pezeta ordaindu behar izaten zuten hasieran. 48 bazkiderekin hasi zuten ibilbidea. Orduetik, kontatu digutenez, 142 bazkide izan ditu Mahaspildegik. Egun, 58 ditu, 39 titular, ohorezko 17 eta bazkideen bi lagun.

### Emakumeen parte hartzea

Lau hamarkada hauetan izan du nabarmentzeko moduko mugarririk Atxegaldeko sarbideetako batean kokaturiko bilguneak; nagusietako, emakumeen parte hartzea. Pixkanaka emandako urratsekin bermatu da. Oroitu digutenez, 1993an sukaldara sartzea baimendu zuten, eta 2013an izan zituen Mahaspildegik lehen emakumezko bazkideak. Eguneko lehendakariak egun bizilekua duen etxebizitza saldu zionean jabeak, pisuarekin batera, bere Mahaspildegiko bazkidetza ere erostea eskaini zion. Garai horretan aldatu zituzten elkartearen estatutuak. Ordura arte, hemezortzi urtetik gorako gizonezkoak sar zitezkeela jaso zuten. Berez, ez zegoen zehazki idatziz jasoa emakumezkoek sarbidea debekatua zutenik. Baina argi zen, gizonezkoen aipamenak kanpo uzten zituztela emakumezkoak eta horixe egitea erabaki zuten, gizonezkoen aipua ezabatzea.

Orduetik bat baino gehiagok herentziaz jasotako plazagatik edota erosita, elkarteak duen bigarren emakumezko lehendakariak aipatu digun moduan, "egun zazpi bat gara". Gehiago izateko desioa agertu dio NOAUA!ri. "Gazteak animatu nahi nituzke, eremuok denon-

tzako direla ikusteko". Lagu → narte giro ederrean elkar-  
tzeko gune ederra dela defen-  
datzen du.

Ildo horretan kokatu du el-  
karteko kideek orain arte izan  
duten ezinbesteko garrantzia  
eta haien guztien artean izan  
den lankidetzeta. "Denok ari  
gara Mahaspildegiko aurrera  
ateratzeko lanean".

**Biziberritzea helburu**

Lau hamarkada hauetako ibil-  
bidea bermatu dutenak bildu  
eta egindako 40. urtemugako  
ospakizun bazkariaren ondot-  
tik, aurrera begirako erronkez  
galdetuta argi erantzun digu-  
te; batetik, kirol eta kultur  
ekintzak sustatzeko elkarte  
ere badenez, dinamika ezber-  
dinak abiarazi nahi lituzkete.  
Aipatu digutenez, covid19ak  
eragindako bi urteko osasun  
krisialdiaren etenaldiaren ostean,  
"kosta zaio jendeari  
itzultzea, ea horri buelta ema-  
tea lortzen dugun".



40 urte bete dituen Mahaspildegiko elkarte. ARGAZKIA: MAHASPILEDGI

Udaberri honetan, elkarte  
arteko mus txapelketan parte  
hartu du Mahaspildegik, bai-  
ta antolaketa lanetan ere. He-  
rriko bost bilgune batu zituen  
ekimeneko finala Atxegaldeko  
gune honetan ospatu zuten.  
Lerroon amaieran dituzue  
lehen lau bikote sarituak.

Horrekin batera, "erabiltzai-  
le gehiago erakartzea" ere bada  
Mahaspildegiko zuzendaritza  
batzordean daudenen beste  
helburuetako bat. Halako el-

karte batek interesa izan de-  
zakeen orori zer eskaini die-  
zaiokeen galdetu diegu. In-  
darguneen artean, azpiegitu-  
rak aipatu dizkigute; kokagun-  
ea, kanpoko terraza, sukaldea  
bera... Nabarmentzeko en  
artean baita, "bazkideen arte-  
teko harreman oso ona".

Halako elkarte batek aurrez  
ezagutu gabekoekin harre-  
mandu eta batzuen zein bes-  
teen ohitura gastronomikoak  
ezagutu eta ikasteko aukera

ere eskaintzen digula gogora-  
razi digute.

**Elkarteko laguna**

Baldintza hauekin, horregatik,  
40 urte bete dituzten honetan,  
kide berrien parte hartzea  
sustatu nahi dute. Horretarako,  
bazkidearen lagunaren  
figura sortu dute. Horren bidez,  
batzordean erabakitze esku-  
biderik ez, baina gainerakoan,  
elkartera erabiltzeko bazkideek  
duten eskubide bera dago.  
Ezin aproposagotzat jotzen  
dute, Mahaspildegiko barne  
bizitzan murgiltzeko proba  
egin nahi dutenentzat. "Kon-  
promiso txikiagoa da, ez ba-  
zaude ziur edozein unetan  
utzi dezakezu". Hortxe doa-  
kizue gonbita. "Zatoz Maha-  
spildegiko elkartera ezagutzera.  
Elkarteko lagun izateko bal-  
dintza berriak! Deitu eta gal-  
detu, bisita gaitzazu. Konpro-  
misorik gabe!", bideotatik: 659  
331 842 edo mahaspildegik@  
gmail.com



Joko Garbiko Iñakik eta Enekok irabazi zuten txapelketa. ARGAZKIA: MAHASPILEDGI



2. postua: Peña Pagolako Joxe Makatza eta Peio. ARGAZKIA: MAHASPILEDGI



3. postua: Peña Pagolako Justo eta Rufino. ARGAZKIA: MAHASPILEDGI



4. postua: Andazpeko Mikel eta Iñaki. ARGAZKIA: MAHASPILEDGI

# Pilotako kartelera bete-betea dator asteburu honetan

Pagazpe pilota elkarteko gaztetxoek arteko finalak aste honetan jokatu dira Usurbilgo frontoian.

**Ekainak 7 asteazkena, 17:30**  
**Usurbilgo frontoian**  
 Pagazpeko gaztetxoek finalak Alebin, benjamin eta infantil mailako finalak.

**Ekainak 9 ostirala, 18:30**  
**Usurbilgo frontoian**  
 Kadeteen Usurbilgo txapelketa Alejo-Errasti (Usurbil) Zufiria-Oñate (Billabona)

Seniorren Usurbilgo txapelketa, finalaurdenak Alberdi-Irazustabarrena (Alegia) Perurena-Garmendia (Lazkao)

**Ekainak 10 larunbata, 18:00**  
**Aginagako frontoian**  
 Kadete 2. Maila, Gipuzkoako txapelketa, finalaurdenak Errasti (Pagazpe) Lopez (Ataun)

Seniorren Usurbilgo txapelketa, finalaurdenak Lizeaga-Beloki (Astigarraga) Urkizu-Labaka (Hernani)

Lizeaga-Elola (Tolosa) Orbegozo-Aranburu (Orio)



Usurbilgo senior mailako txapelketa finalaurdenetan da. NOAUA

**Ekainak 11 igandea, 11:30**  
**Usurbilgo frontoian**  
 Kadeteen Usurbilgo txapelketa Aburuza-Pagola Perurena-Elola

Seniorren Usurbilgo txapelketa, finalaurdenak Olaizola-Aranburu (Orereta) Larunbe-Telletxea (Atarrabia)

**Margotu**  
 Eman kolorea lagun talde honi. Izar batzuk ere marraztu itzazu, gaua da eta.

**Itzala**  
 Zortzi itzal hauen arteik zein ote da zuzena?

GAIZVLNPTOKIWUP IRANUPBAZIWLUP, VLNUPIRAWLPTXOMUJEKWLPVLLNUP VLNUPIRAWLUPGAMUJZIWUP

**Zeer?!?**  
 Ezaba itzazu VLNUP, WUP eta MUJ guztiak eta iratxoek gaineko esaera bat agertuko zaizu.

**DOMINOAN**  
 Egin itzazu falta diren marrazkiak, domino zati honek zentzua izan dezan.

**SUDOKUA**  
 Bete hutsuneak, IRATXO hitza osatzen duten hizkiak (I, R, A, T, X eta O) dagokien tokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

**ALdea dago!**  
 Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 10 dira guztira.

BAINA ZUEK EZ ZINETEN HAITZULO ETA PUTZUETAN BIZI?!

**ENGainagarrak**  
 10 puska haueetatik 5 irudi nagusitik hartuta daude eta besteak ez. Bereiz itzazu.

Plazan Bazan 12/13 orrialdeetako soluzioak.

## MERKATU TXIKIA

## ERREBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbizuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Jarduera lizentzia duen pisua da, igogailua, bainugela, sukaldea eta itzarongela barne. WiFi eta elektrizitate barne. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Usurbilen, kaxkoan edo auzoetan mutil batentzako pisu bila nabil. 622 925 562.

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bizitzeko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Familiarteko baten egonaldirako litzateke. 636 711 514.

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. Harremanetarako: 646 601 947. 18:00etatik aurrera deitu.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarrerako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. Ginteresik baduzu, deitu telefono zenbaki honetara: 652 765 583.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian, lanaldi ororako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zubietan etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu lanaldi erdian. Interesik baduzu, deitu telefono zenbaki honetara: 695 783 202.

Sukaldari bat behar dugu Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzaren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? 680 483 164.

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten espezialista. 602 082 583.

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinakoak zaintzen: 602 586 014.

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lanak lan bila dabilen neska euskalduna naiz. 695 184 179 (Olatz).

## BESTELAKOAK

Paseoko bizikleta bat daukat salgai. Ez dauka markarik. Pertsonalizatuta egindako bizikleta da eta egoera oso onean dago. Interesatuta bazaude deitu telefono zenbaki honetara: 644 619 358.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarte Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## EGUNEZ

Osteguna, 08	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 09	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 10	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 11	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Astelehena, 12	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Astearte, 13	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Asteazkena, 14	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Osteguna, 15	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 16	GANDARIAS-URIBE Inigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Larunbata, 17	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Igandea, 18	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIÖZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

## Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## HILDAKOAK



**Antxon Zubeldia Maiz**  
Ekainaren 2an hil zen, 66 urterekin.



**Justo Camino Ibargoi**  
Ekainaren 5ean hil zen, 92 urterekin.



**Jesus Aramberri Zulaica**  
Ekainaren 5ean hil zen, 85 urterekin.



**Fidel Santamaria Hernando**  
Ekainaren 6an hil zen, 86 urterekin.

## ZORION AGURRAK



## Urte askoan Etxahun!

7 urte bete dituzu eta bazoaz kantu eta kontuak pilotzen. Egun zoragarria pasa dezazula. Muxu handi bat.

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 09

### USURBIL Ikastola Eguna

17:00 Txokolate jana. 18:00 Dj Mendi Askatasuna plazan. Antolatzaileak: Udarregi ikastola eta Hitz Aho guraso elkarte. *Askatasuna plazan.*

### USURBIL DA liburu kolektiboaren aurkezpena

Aurkezpen saioa, Zorione Mendez Martin eta Gimena Angeriz Ferreroren eskutik. *19:00etan Potxoenean.*

## LARUNBATA 10

### USURBIL Ikastola Eguna

Egun osoko egitaraua. Antolatzailea: Udarregi ikastola, Hitz Aho guraso elkarte. *Udarregi ikastolan.*

### USURBIL 'Uurbil Museo Irekia' bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan), 650usurbilbizi.eus atarian. *12:00etan Sutegin.*

## IGANDEA 11

### USURBIL 'Uurbil Museo Irekia' bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan), 650usurbilbizi.eus atarian. *12:00etan Sutegin.*



Ostolaza eta Narbaiza trikitilariak girotuko dute larunbateko bazkalostea.

# Udarregi ikastolan jai giroan amaituko dute ikasturtea

Ostiral arratsalderako ospakizun bat iragarri dute Askatasuna plazan. Larunbateko jaia Usurbilgo frontoian egingo da.

Badator 2022-23 ikasturtea agurtzeko unea. Aurretikordea, Ikastola Eguna antolatu ohi du Udarregik. Aurtengoa, ekainaren 10ean izango da. Eki-menen artean, bazkariaren bueltan bilduko da ikastolako komunitatea. Hori bai, bazkarirako eta ondorengo festarako txartelak ekainaren 2a baino lehen eskuratu behar ziren.

Hurbilago Elkartearen eskutik dastatu ahalko da menua.

Bazkalostean, ikasleen musika emanaldia eta Ostolaza eta Narbaiza trikitilarien parte hartzea iragarri dute.

### Ikastola Eguna Ekainak 9 ostirala

-17:00 Txokolate jana Askatasuna plazan.  
-18:00 Dj Mendi Askatasuna plazan.

### Ekainak 10 larunbata

-Goizean zehar, LH eta DBH-koen jolasak.  
-14:00 Bazkaria.  
-17:00 Ikasleen saioa, eta Ostolaza-Narbaiza trikitilariak.

### Ekainak 14 asteazkena

-9:30 'Agenda 30' ikasleen aurkezpena Usurbilgo Udaleko udalbatza aretoan.

## Zubietako UdaFest azken txanpan sartu da

Guraso Elkarateak antolaturiko ekitaldiak Zubietako errebote plazan egingo dira.

### Ekainak 8 osteguna

17:00 Ipuin kontalaria.  
18:00 Apar Festa.

### Ekainak 16 ostirala

17:00 Antzerki eguna.

## Xabier Peñalverren hitzaldia, Aitzaga elkartearen

Aitzaga kultur elkartekoek NOAU Araigorri duten oharrean aditzera ematen duten moduan, "turismo konbentzionaletik harago, gauza asko daude, askotan nahitara ez-kutatzen direnak, batik bat, ezkerreko kutsua dutelako. Urteetan horien bila aritu da etengabe Xabier Peñalver. Bere esperientziekin *Revolución, resistencia y memoria - Patrimonio de la humanidad* (Txalaparta) gida berezia osatu du". Xabier Peñalver bera Aitzagan izango da ekainaren 16an ostirala, 19.00etan.

### Bazkideen batzarra

Aitzagak bere bazkideei deia luzatu die, ekainaren 14an egingo den batzarrera bertaratu daitezten. 19:00etan hasiko da bilkura.

**Otar-Goxo**  
Elkargaiak  
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA  
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA  
·KARTA  
·RAZIOAK  
·HANBURGESAK  
·BOKATAK

Instagram Facebook

**ADA**  
-MASAJEAK-  
633 36 22 33



Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA

943 53 92 66 - 623 462 658

✉ irati.ibargoien@gmail.com

🌐 iratibargoien.com

📱 @irati\_ibargoien\_fisioterapia

📍 Puntapax kalea 6B.behea ezk. Usurbil 20170


eskura

elikadura eta dietetika aholkularitza

·diabetesa ·hipertentsioa ·gizentasuna  
·elikadura eta kolesterol arazoak

*elikadura ohiturak zure neurria aldatzen  
laguntzen dizugu!*

688 843 696 ZUBIAURRENEA 1, 1C USURBIL



USURBIL  
O P T I K A

PROGRESIBO,  
URRUTIKO  
ETA GERTUKO  
BIGARREN LENTE  
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



·Dosifikazio sistema pertsonalizatua  
·Dermofarmazia  
·Produktu homeopatikokoak  
·Maisu formulak

lturraldebotika

Tomas Iturralde botika  
33/22 PEZ.

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 19/22



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

Kima  
MASAJE LEKUA

·Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa  
biomekanikoa

📞 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

zenta

ORTOPEDIA BAT  
BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure  
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Osakidetzarekin  
hitzarmena

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren  
azterketa bat egitera!

*sustraitu osasuna oinetatik*

# Edertu zaitez!

OFERTA · ESKAINZA · OFERTA · ESKAINZA · OFERTA · ESKAINZA

2 saio  
OPARI

4 BDR  
+ 2 INDIBA  
380 280€

4 BDR saioekin, 2 INDIBA saio opari

Estetika 15 egunetako

snar  
ESTETIKA

@enarestetika · enarestetika.com

943 571 680 | 620 852 875 · Muna Lurra 2., behea, Usurbil

 *Ane*  
ILEAPAINDEGIA

*Artzabal*

 **JUBILATUENTZAT  
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 688 75 96 96

UDARAKO...  
ZURE AZALA ETA  
GORPUTZARAKO  
TRATAMENDU  
BERRIAKI!

Transforma, esculpe, reafirma  
Crema Premium Sculptor

Consigue el ritual completo de Cepillo Corporal y Crema Premium Sculptor por un precio especial de 49,50€.

**INTZA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

*Elexpe*  
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

GOLDWELL  
ELUMEN

*m*

**mistoa**

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

Arkeneko produktu eta teknikak!

**mistoa**